

Bergara, Antzuola eta Elosuko apaiza da Juan Kruz Mendizabal, eta zenbait komunikabidetan irakurri izan ditugu haren iritziak.

Juan Kruz Mendizabal

«Erroma gabe ere, ondo bizi naiz»

Onintza Enbeita

Eliza lau hormaren barruan dagoena baino zerbaite gehiago da Mendizabalentzat, eta horretan dihardu lanean. Ez diote Vatikanotik gutunik bidali oraingo, eta askatasunez bizi du fede, fedeak askeago egiten duelako.

Batzuek esaten dute apaizek zeuek sinesten ez duzuen sinetsarazi behar izaten diezuela besteei...

Esaten dugun guztia ez dugu zuzenean bizi, baina egun gehienok bokaziodunak gara.

Aldareak boterea ematen du?

Aldarera botere bila igotzen denari jaisteko esango nioke. Aldarea zerbitzua da.

Zein zerbitzu eskatzen duzue?

Geuk izan dugun fede esperientzia jendearen eta herriaren zerbitzura jarzen dugu.

Eta komunikabideek ematen dute boteretik?

Zalantzarik gabe! Hala ere, nik nahia-nahia nuke Elizak Espainian duen komunikabidea, COPE irratia, izango ez balu, eta nahia dute herriko komunikabideak erabili Elizak bere komunikabidea izan beharrean.

Zuk zer zabalatzeko idazten duzu komunikabideetan.

Nik nire bizipenak kontatzen ditut. Eliza lau hormen artean geratu da, eta plazara atera behar dugu.

Lau horma horietara jendea sartzeko, zer eragin behar luke Elizak?

Jendea dagoen lekura joan.

Diozuna ikusita, oso pentsaera zabalduzula ematen du!

Fededun izateak oso ireki egin banau, fede hori erakunde batean bizitzeak ezin nau itxi. Ebanjelioa oso irekia da.

Eta zer gertatzen da ebanjelioa oso estu interpretatzen dutenekin?

Doazela kalera eta entzun ditzatela jendearen sufrimendua, bizipenak eta ametsak.

Vatikanok daukan jarrerarekin arraroa da zuri entzutea.

Niri ere Vatikanok esandako astakeria asko ez zaizkit gustatzen. Hala ere, inork ez dit Vatikanotik eskutitzik bidali, eta nik fedearen hemen bizi dut eta hementxo jendearekin. Hiru mailako Eliza bizi dugu: geure parrokiakoa, Euskal Herrikoa eta Erromako Eliza; eta Erroma gabe ere, ondo bizi naiz.

Homosexualak, kondoiak, abortua... Inor ez dute uzten bakean!

Vatikanoko errealitatea oso urrun dago errealitatetik. Munduko fededun guztiei berdin hitz egiten die, eta hori aniztasuna ez onartzea da. Gainera, ematen du moraliki inposatu egin nahi dutela fede, eta hori ez dut onartzen.

Aurrez aurreko harremanetan bakarrik bermatzen al da Jaungoikoarekiko komunikazioa?

Azken batean, gizakiarekin komunikatu nahi ez duenak ez du Jaungoikoarekin komunikatu nahi.

Orain SMSak eta Interneteko solasguneak ere badaude...

Atera kontu bion harremana nolakoa izan den: lehenengo Internetez, gero sakelako telefonoz eta orain telefonoz.

Garrantzitsuena falta zaigu!

Bai, aurrez aurrekoa. Komunikazio bide horiek garrantzitsuak dira, baina ez dugu horien morroi izan behar.

Zeuk ere igartzen duzue harremanak asko aldatu direla?

Bai, baina jendeak sumatzen du aurrez aurrekoa falta dela, eta besteak batzutan gezurra direla. Ni ez naizen norbait izan naiteke pantailaren beste aldean.

Aitorlekuak hustu zirenetik psikologoek kantsultak bete dira!

Eta psikologoek fakturak handitu zituztenetik, berriro datoz guregana.

Denok behar dugu norbait entzun gaitzan. Aitorlekuak hustu zirenean, beste harreman mota bat sortu zen: etxera gonbidatzen gaituzte, kafea hartzeko elkartzen gara... eta gaueko ordu txikietan etortzen zait jendea.

Gaueko ordu txikietan?

Bazeneki! Jendeak momentu hunkigarrietan edo edaten duenean...

«Aitorlekuak hustu zirenean, beste harreman mota bat sortu zen: etxera gonbidatzen gaituzte...»

Ez daukagulako inorentzuz gaitzan.

Denok behar dugu norbait hurbil. XX. mendeak tresnak jarri ditu gure bizitzetan pertsonen ordez: telebista, telefonoa, Internet... baina gauek ezin dituzte pertsonak ordezkatu.

Auzo txiki bateko apaiza izanda, ez duzu lan askorik izango?

Elosuko apaiza naiz, baina Bergarakoa eta Antzuloakoa ere bai. Elosuan hilean behin bakarrik ematen dute meza, baina astero joaten naiz, hango elkarreko bazkidea naiz, auzolanean parte hartzen dut...

Harreman publikoetan ona zara zu enpresaz kanpo!

Gure enpresa husten ari da, eta bezero bila irten egin behar da. Hala ere, nik ez diet ezer saltzen, neure burua eskaintzen dut lanerako.

Krisi garaian aurkituko al dugu kontsolamendurik erlijioan?

Erljioa ez da botika bakarrik, esnatzeko ere bada. Edozein aukera arriskuan ikusten dugunean, iraultzarako erreferentea izan beharko litzateke.

Bestela, curriculumean benetan sobera legoke!

Erljioak, gertakizun kultural gisa, gauza asko ulertzen lagunduko liguke, baina hautazkoa izan behar du.

Igandea
2009ko Apirilaren 5a

berria

